



Arartekoaren 2021R-939-21 Ebazpena, 2021eko azaroaren 24koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatu zaio berrikerik dezala etxebizitzarako prestazio ekonomikoa delakoa azkendu dela eta behar ez bezala jasotako zenbatekoak itzuli behar direla ezartzen duen Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariaren ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioa ezesten duen Etxebizitzako sailburuordearen ebazpena.

Aurrekariak

1. Arartekoak izapidetzeko onartu zuen herritar baten kexa bat. Kexa horren bidez, adierazi zuen ez zegoela ados etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa aitortzarekin batera prestazio subsidiarioak azkendu izanarekin, ez eta behar ez bezala jasotako prestazio ekonomikoen kontzeptupean 250 euro itzultzeko eskatzeko Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariak hartutako erabakiarekin ere.

Zehazki, kexagileak kexa idazkian adierazi zuen "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emanda dagoela 2012az geroztik. Era berean, jakinarazi zuen etxebizitza duin eta egoki bat legez hartzeko eskubide subjektiboa zuela aitortua 2019ko abenduaren 4az geroztik. Horrela, botere publikoek ezin izan ziotenez etxebizitza bat eskuratu, etxebizitzarako prestazio ekonomikoa delakoa aitortu zioten, subsidiarioki.

2. Hala ere, 2020ko urriaren 5ean, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariak 2020ko abuztuaren 1etik ondorioak izanik kexagileari eta bere bizikidetzaren unitateari etxebizitzarako prestazio ekonomikoa delakoa azkentzea erabaki zuen. Prestazioa azkendu zitzaizen aurreko sei hilabeteetako errentak banku transferentzia bidez ordaindu izanaren ordainagiriak ez zirelako aurkeztu.

Nolanahi ere, kexagileak berriz ere adierazi zuen, alegazioen idatzi bat aurkeztuz, etxebizitzarako prestazio ekonomikoa familiarekin batera bizi zen etxebizitzaren hileko errenta ordaintzera bideratu izana justifikatzeko ordainagiriak bai aurkeztu zituela.

Azaldutako guztia gertatu arren, 2020ko urriaren 29an, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariak ebatzi zuen kexagileak eta bere bizikidetzaren unitateak 250 euroko kopurua itzultzeko betebeharra zeukatela.

3. Horrenbestez, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariak emandako ebazpenarekin ados ez zegoenez, 2020ko azaroaren 23an kexagileak gora jotzeko errekurtsioa jarri zuen.

Idazkian, kexagileak adierazi zuen banku erakundeak ez zituela ordainketak leihatilan onartu, pandemia egoeratik eta ezarritako alarma egoeratik. Hala ere,





azaldu zuen etxebizitzarako prestazio ekonomikoa etxebizitzaren hileko errenta ordaintzera bideratu izana aski justifikatu zuela. Izan ere, etxebizitzako errentatzaileak sinatutako ordainagiriak Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu zituen.

Horregatik guztiagatik, bere errekurtoa izapidetzeko onartzeko eskatu zuen, bai eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoa delakoa azkentzeko ebazpena eta 250 euroko zenbatekoa itzultzeko erabakia ondorioz gabe uzteko ere.

4. Azkenik, Etxebizitzako sailburuordeak 2021eko martxoaren 26an aurkeztutako errekurtoa ezestea ebatzi zuen, eta erabaki horren ondorioz, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariak hartutako 250 euro itzultzeko eskatzeko erabakia berretsi zuen.

Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariak emandako arrazoibidearekin jarraituz, Etxebizitzako sailburuordeak honako honetan oinarritu zuen bere erabakia:

- *"En el supuesto que nos ocupa, la documentación requerida para el mantenimiento se considera que no ha sido presentada dado que tres de los recibos aportados son manuales."*

Edonola ere, aurretiazko erabakien kasuan bezala, ebazpenak ez zeukan prestazio subsidiarioa azkentzea bezalako erabaki kaltegarri bat hartzearen arrazoiak oinarritzen dituen betebeharreko arauen inguruko azalpenik.

5. Azaldutako egitateak ikusita, Arartekoak lankidetzaren eskaera igorri zion Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari.

Arartekoak, bere idazkian, alde aurretiko gogoeta batzuk helarazi zizkion; horiek geroago azalduko ditugu, errepikakorrak ez izateko.

6. Lankidetzaren eskaerari erantzunez, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzako administrazio eta zerbitzuen arduradunak egindako txosten bat sartu zen erakunde honen erregistroan. Txosten horretan, azaldutako gertakariak berretsi zituen eta Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzaren erabakia berretsi zuen, bai kexagilearen etxebizitzarako prestazio ekonomikoa delakoa azkentzei bai behar ez bezala jasotako prestazioengatik 2020ko abuztuari dagozkion 250 euro itzultzeko deklarazioari dagokionez.

Zehazki, igorritako erantzunean, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak honako hau berretsi zuen:

- *"...el motivo de la extinción de la prestación económica es que se considera que la documentación requerida para el mantenimiento de la prestación no ha sido correctamente presentada dado que tres de los recibos aportados son manuales."*





(...)

Como consecuencia de ello, es procedente el reintegro de 250 € en concepto de prestaciones indebidamente percibidas, correspondientes a lo percibido el mes de agosto de 2020.”

Hala ere, ez zen inolako informaziorik bidali urratutako araudi zehatzari buruz, etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboaren prestazio subsidiarioak azkentzea eta aurretik ordaindutako zenbatekoak itzultzeko eskatzea bezain larria den erabaki bat ekarriko lukeenik.

7. Hortaz, egitate eta zuzenbide-oinarri nahikoak daudela uste denez, honako gogoeta hauek egin dira:

Gogoetak

1. Duela hamarkada batzuetatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1. artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1. artikulua), baita Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Gutunak berak (34.3. artikulua) ere, edo Europako Gutun Sozial berrikusia bera (31. Artikulua)¹) azpimarratu izan dute etxebizitzak alderdi soziala duela, pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.
2. Testuinguru horretan, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen (aurrerantzean, EL) 7. artikulua etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea eta etxebizitza edo bizitoki bat legez okupatzeko eskubidea aitortzen die administrazio-auzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) edozein udalerritan duten pertsona guztiei.

Eskubide hori betetzeko moduei dagokienez, ELaren 9. artikulua lehentasunez aurreikusten du etxebizitza edo zuzkidura-bizitoki bat alokairu-erregimenean jartzea.

Etxebizitzarik edo bizitokirik ez dagoenean soilik, eta modu subsidiarioan, prestazio ekonomikoen sistema bat ezarri gaizatu ahal izango da etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa betetzea.

3. Gaur egun, etxebizitzarako prestazio ekonomikoa deritzona aitortzeko betekizunak labor-labor jasota daude ELaren laugarren xedapen iragankorrean.

Laburbilduz, bi dira etxebizitzarako prestazio ekonomikoa delakoa aitortzeko eskatzen diren funtsezko betekizunak. Alde batetik, alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen eskatzaile gisa gutxienez lau urteko antzintasuna behar

¹ Europako Gutun Sozial berrikusia. 2021eko ekainaren 11ko BOE, 139. zenbakia. 2021eko uztailaren 1ean indarrean jartzea.





bezala egiaztatzea. Bestetik, bizikidetzaren unitatearen berezko osaeraren arabera zenbaterako jakin bat gainditzeko ez duten diru-sarrerak haztatuak justifikatzea.

Nolanahi ere, legegile autonomikoaren borondatea izan zen aipaturiko eskubide hori eta prestazio subsidiarioa erregelamendu bidez garatzea, eskubidea aitortzeko sistema beharrezko segurtasun juridikoaz hornitzeko.

Gai zehatz horri dagokionez, Arartekoak gogorarazi nahi du Eusko Legebiltzarrak, Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren erregistroan onartzeko irizpideak aldatzeko neurriei buruzko 12/2017 Legez besteko Proposamenean², Eusko Jaurlaritzari hau eskatu ziola:

- *"...bederatzi hileko epean garatu dezala Etxebizitzaren 3/2015 Legeak jasotzen duen etxebizitza- eskubide subjektiborako irispidea arautzeko dekretua. Hori egin dezala kolektiboei, gizarte-eragileei eta herritarrei oro har irekita egongo den herritarren parte-hartzerako prozesu baten markoan, eta ahal beste sentsibilitate eta kasuistika jasotze aldera".*

Era berean, etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboaren eta prestazio osagarriaren araubide juridikoa definitzeko beharra nabarmendu du Arartekoak Eusko Legebiltzarrari zuzendutako urteko txostenetan³.

Aurretik azaldutako guztia gorabehera, Arartekoak kezka egiaztatu du eskubidearen arauzko garapena eta dagokion prestazio osagarria ere ez daudela jasota Gobernu Kontseiluak 2021eko apirilaren 13an onartutako Urteko Araugintza Planean⁴.

4. Bien bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onartzen dituzten legeek, xedapen gehigarrietan, prestazio osagarriaren aitopenei eta eskubide horren onarpenari lotutako erregelazio iragankorren aipamena egin dute. Zehazki, urtero honako aurreikuspen hau errepikatzen da:

- *"Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean etxebizitzarako gastuetarako prestazio osagarriko aurreikusitako araubidea indarrean egongo da Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako erregelamenduzko xedapenak, modu subsidiarioan prestazio ekonomikoaren sistema bat ezartzeari buruzkoak, indarrean sartu arte. Araubide eta prozedura hori ezarriko zaie, aldi baterako, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen laugarren*

² **Eusko Legebiltzarra.** 12/2017 Legez besteko Proposamena, Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren erregistroan onartzeko irizpideak aldatzeko neurriei buruzkoa. Jatorrizko ekimena: 11\11\02\01\00049.

³ **Ikusi:** Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2016. urtekoa (196. or.); Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2017. urtekoa (192. or.); Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2018. urtekoa (191. or.); Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2019. urtekoa (195. or.); eta Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2020. urtekoa (200. or.).

⁴ **Gobernu Kontseilua.** 2021eko apirilaren 13an hartutako erabakia. Hemen eskuragarri: https://bideoak2.euskadi.eus/2021/04/13/news_68157/Eranskina.pdf



*xedapen iragankorrean aurreikusitakoarekin bat etorriz prestazio ekonomiko baten onuradun izan daitezkeen pertsoneri*⁵.

Ildo beretik mintzatu da 2022. ekitaldirako EAEko Aurrekontu Orokorra onartu duen Lege Proiektua ere, zazpigarren xedapen gehigarrian⁶.

Hain zuzen ere, azaldutakoaren arabera, ELan bertan jasotako berezko betekizunetatik haratago, legegile autonomikoak legean adierazitako nahia da prestazio osagarriari aplikatu dakioken araubide juridikoa, aldi baterako eta erregelamenduzko arau bat onetsi arte, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean (eta, ondorioz, urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuan, etxebizitzarako prestazio osagarriari buruzkoan) jasotakoa izan dadila.

Izatez, kexagilearen gora jotzeko errekurtsua ezesten duen 2021eko martxoaren 26ko ebazpenaren bosgarren zuzenbideko oinarrian Etxebizitzako sailburuordeak literalki jasotzen du EAEko Aurrekontu Orokorren inguruko Legean bildutako araudiaren edukia, eta amaitzeko, etxebizitzarako prestazio ekonomikoa azkentzeko arrazoi bezala abenduaren 23ko 18/2008 Legeko 43. artikulua aplikatzen du.

5. Hala ere, Etxebizitzako sailburuordearen ebazpenenean islatutakoa jaso arren, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Arartekoari jakinarazi dio, itxurazko arau-hutsune hori konpontzeko, Etxebizitzako Sailburuordetzaren azaroaren 4ko 1/2016 Jarraibidea, etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren kudeaketari buruzkoa, ezartzen ari dela⁷.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 7. artikulua sailburuordeei ahalmena ematen die honako hau egiteko: *“Sailburuordetzaren jarduerak planifikatu, zuzendu, koordinatu, bultzatu eta gainbegiratzea, bai eta zuzendaritzenak eta sailburuordetzaren mende dauden gainerako administrazio-organo eta -unitateenak ere, horretarako behar diren jarraibideak eta aginduak emanez.”*

⁵ Ikusi: 9/2015 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2016. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen (zazpigarren xedapen gehigarria); 2/2017 Legea, apirilaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2017. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen (zortzigarren xedapen gehigarria); 5/2017 Legea, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen (zortzigarren xedapen gehigarria); 13/2019 Legea, abenduaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen (zazpigarren xedapen gehigarria); 1/2021 Legea, otsailaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen (zazpigarren xedapen gehigarria).

⁶ **Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila.** 2020. ekitaldiko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartu zuen Lege Proiektua. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/aurrekontuakeae/web01-a3ogappt/eu/>

⁷ **Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.** 1/2016 Jarraibidea, azaroaren 4koa, Etxebizitzako Sailburuordetzarena, etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren kudeaketari buruzkoa. Hemen eskuragarri: https://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/tramita_circular/cios_pno_118291_16_04/eu_def/adjuntos/2016%20instrucci%C3%B3n%20pev%20def.pdf]





Orduan, berez, Etxebizitzako sailburuordearen jarraibide batek administrazio-antolamenduaren berezko eremuan izango lituzke ondorioak; eta, horrela, antolamendu horretan nagusi den hierarkia-printzipioa azaleratuko litzateke. Ondorioz, bere helburu nagusia mendeko organoen jardunerako irizpideak eta jarraibideak finkatzea izango litzateke.

Izan ere, lehenik eta behin, aipaturiko jarraibide horrek hasieran azaltzen duenez, honako helburu hau du: *"menpeko organoek bete beharko dituzten barneko antolamendu-jarraibideak ezartzea"*. Hori ere egiaztatuta geratzen da testuaren seigarren puntuak subjektu hartzaile esklusibo gisa honakoak ezartzen dituenen: *"Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza"*.

Hala ere, jarraibidea alde aurretik adierazitako subjektuetara mugatu beharrean, Arartekoak egiaztatu du testuaren edukiak xehetasunez arautzen dituela prestazio osagarria aitortzeko betekizunak, haren azkentzea eta behar ez bezala jasotako prestazioak itzultzeko prozedura.

Zehazki, erreklamazio honi dagokionez, jarraibidearen bigarren puntuak berariaz ezartzen du prestazio osagarriaren titularra behartuta dagoela errentamendugastuak justifikatzera banku-transferentzia edo helbideratze bidez, eta horien egiaztagiriak, dagokien finantza-erakundearenak, sei hilean behin aurkeztuz.

Laburbilduz, azaldu den bezala, barne-tresna batez hornitzeko hasierako borondate horretaz haratago, jarraibideak, amaitzeko, garrantzi handiko alderdi juridiko materialak arautzen ditu, *ad extra* eraginkortasuna dutenak eta prestazioaren hartzaileei zuzenean eragiten dietenak.

6. Arartekoak hainbat ebazpenetan izan du gai zehatz honen inguruan mintzatzeko aukera⁸.

Arartekoak ez du eztabaidatu nahi Etxebizitzako Sailburuordetzak bere burua antolatze duen ahalmenaren inguruan. Hain zuzen ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 6.1. artikulua honako hau ezartzen du:

- *"Administrazio-organoen zerbitzu-jarraibide eta -aginduen bidez zuzen ditzakete hierarkian mendean dituzten organoen ekintzak.*

Zerbitzu-jarraibide eta -aginduak dagokion aldez aurretik ofizialean argitaratuko dira, xedapen espezifikoaren batek hala ezartzen bada edo, hartzaileak edo gerta daitezkeen ondorioak direla eta, komenigarritzat jotzen bada. Hala ere, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari

⁸ Ararteko. 2021R-222-20 Ebazpena, ekainaren 14koa; 2021R-981-21 Ebazpena, uztailaren 9koa; 2021R-1033-21 Ebazpena, abuztuaren 12koa; 2021R-1044-21 Ebazpena, abuztuaren 16koa. Hemen eskuragarri: www.ararteko.eus





buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusita dagoenaren arabera ere eman dakieke zabalkundea.”

Aitzitik, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du aipaturiko jarraibidearen irismena argitzea, bai eta horrek etxebizitzarako prestazio ekonomikoa delakoa eskatzen duten hirugarrenen aurrean duen eraginkortasuna ere.

Azalpenaren argitasunagatik, nahitaez aipatu behar da 2020ko ekainaren 11ko Autoak⁹, Auzitegi Gorenarenak (aurrerantzean, AG), honako hau adierazi zuela jarraibideen eta zirkularren izaera juridikoari buruz:

- *“...con independencia del nomen iuris que puedan adoptar tales resoluciones, las meras instrucciones carecen de naturaleza reglamentaria, al tratarse de una manifestación de la potestad autoorganizativa de la Administración pública, consistente en la capacidad de dirigir la actividad interna, mediante órdenes o pautas de funcionamiento de los órganos superiores a los inferiores que dependan jerárquicamente entre sí. De este modo, al no innovar ni formar parte del ordenamiento jurídico, en el que se integra, la instrucción no trasciende a los ciudadanos, al quedar reservada al ámbito interno de la propia Administración pública (efectos ad intram), aun cuando tengan la vocación de regir en las relaciones de los respectivos órganos administrativos con los ciudadanos dentro del ámbito establecido por la norma legal o reglamentaria que regule una determinada actividad prestacional o de relación con ellos*

lido beretik, AGaren 2006ko ekainaren 21eko epaiak¹⁰ honako hau ezarri zuen:

- *“El carácter informativo o no que haya de atribuirse a una determinada decisión de un órgano administrativo no depende solo de la clase de materia sobre la que verse. Lo verdaderamente decisivo es el alcance y significación que su autor otorgue a dicha decisión.*

Esto último comporta que, cuando la decisión tenga como únicos destinatarios a los subordinados del órgano administrativo, y exteriorice por ello pautas para la futura actuación de dichos subordinados hayan de realizar, habrá de admitirse que lo que está dictando no es un acto normativo con eficacia externa para los ciudadanos sino una de esas instrucciones u órdenes de servicio (...).”¹¹

A sensu contrario, prestazio bat eskuratzeko eta azkentzeko betekizun espezifikoa jarraibide baten bidez zehazteak, bai eta behar ez bezala jasotako prestazioak

⁹ Auzitegi Gorena. 2020ko ekainaren 11ko Autoa. [\[ECLI:ES:TS:2020:4421A\]](#).

¹⁰ Auzitegi Gorena. 2006ko ekainaren 21eko epaia. [\[ECLI:ES:TS:2006:4198\]](#).

¹¹ Auzitegi Gorenak jarrera hori bera defendatu du honako erabaki judicial hauetan. Ikus, besteak beste, honako epai hauek: 2006ko abenduaren 12ko epaia [\[ECLI:ES:TS:2006:8107\]](#). 2007ko otsailaren 7ko epaia [\[ECLI:ES:TS:2007:1497\]](#). 2013ko ekainaren 18ko epaia [\[ECLI:ES:TS:2013:3388\]](#). 2021eko urtarrilaren 26ko epaia [\[ECLI:ES:TS:2021:215\]](#).





eskatzeko prozedura bat aurreikusteak ere, ez du barne-bokazio eta bere burua antolatzeko bokazio hutsa; administrazio-antolamendutik kanpoko hirugarrenak lotzen ditu. Eta, gainera, *ex novo* arautzen ditu garrantzi bereziko gaiak (esan liteke gai horiek, tresna arau-emaile gisa, erregelamendu batek jaso behar dituela, eta ez jarraibide batek).

Laburbilduz, AGaren 2021eko apirilaren 29ko epai berriak¹² dioen bezala, erabakigarria ez da *nomen iuris* delakoa. Dagoeneko finkatuta dagoen jurisprudentzia-doktrinaren arabera, aipaturiko jarraibidearen eduki zehatzaren arabera emango da konponbidea.

Beharrezkoa da, beraz, Etxebizitzako Sailburuordetzak adierazitakoa gorabehera, jarraibidearen azken helburua ordenamendu juridikoa berritzea dela, erregelamendugarapenik eza ordezkatzuz. Hala ere, ez da ahaztu behar, lehenago adierazi den bezala, borondate horrek talka egiten duela, zuzenean, EAEko aurrekontu orokorrak onesten dituzten legeetan aurreikusitako xedapenekin; horiek,aldi baterako, diru-sarreraren bermea arautzen duten xedapenei eta etxebizitzarako prestazio osagarriari lotzen zaizkie.

Izan ere, puntu honetan aipatu behar da urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 19. artikulua berak hitzez hitz dioena. Zehazki, honako hau aurreikusten du:

.1.-Emate-ebazpenari dagokionez, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren titularrak sei hilean behin ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren alokairu-gastuen frogagiriak udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuari aurkeztu beharra ezarriko da. Frogagiri horiek ordainagiri pribatuak, fakturak, edo banku-ordainketako frogagiriak izan daitezke. Sei hilean behingo aldizkakotasun hori egoki jotzen den bezainbeste laburtu ahalko da mugikortasun handia ikusten den kasuetan, eskatzailearen ohiko bizilekualdaketekin.

(...).

*3.- Banketxe bidez egiten ez diren ordainketen kasuan, pertsona fisikoen frogagirik haien sinadura izan beharko dute eta, pertsona juridikoen kasuan, aplikatu behar zaien arautegiaren arabera eman behar duten faktura, alokairuaren zenbatekoa ordaindu dela adierazten duena, aurkeztu beharko da.*¹³

Laburbilduz, jarraibidean araututako edukiaren gehiegikeria nabarmenez gain, Arartekoaren ustez, haren edukiak talka egingo luke, argi eta garbi, urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 19. artikuluan bertan jasotako arau-aurreikuspenarekin.

¹² Auzitegi Gorena. 2021eko apirilaren 29ko epaia [[ECLI:ES:TS:2021:1664](https://www.ecli.es/TS/2021/1664)]

¹³ Letra Iodia Arartekoak jarri du



Puntu zehatz honetan, Arartekoak gogorarazi behar du Eusko Legebiltzarrak 32/2016 Legez besteko Proposamena onartzeko erabakia hartu zuela, etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa eta etxebizitzarako prestazio ekonomiko berria erregelamendu bidez garatzeari buruzkoa¹⁴.

Horrela, Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak onartutako testuak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion ez sartzeko murrizketarik, ez betekizunen arloan, ez zenbatekoetan, ordura arte aitortutako eskubideetan.

7. Era berean, Arartekoaren ustez beharrezkoa da Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak jarraibide horretan behar ez bezala jasotako prestazioak eskatzeko eratu den esparru juridikoaren berrikuspena bultzatzea.

Puntu honetan, gogora ekarri behar da legegile autonomikoaren asmoa dela, aurrekontu orokorren legeak onartuta, aldi baterako ezartzea abenduaren 23ko 18/2008 Legean eta urtarrilaren 12ko 2/2020 Dekretuan bertan jasotako erregulazioa, harik eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren erregelamendugarapena onartu arte.

Hala eta guztiz ere, Saila abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua ezartzen ari da behar ez bezala jasotakoak eskatzeko prozedura horietarako. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen du; eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen ditu.

Arartekoaren ustez, eskubide subjektiboa aitortzeko prestazio osagarriaren izaera juridikoa badirudi ez datorrela bat, Etxebizitzako Sailburuordetzaren jarraibideak lortu nahi duen bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. tituluak diru-laguntzen edo laguntzen araubideari buruz egiten dituen arau-aurreikuspenekin.

Horren adibide gisa, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikulua bera ikus daiteke; horren arabera, laguntzak arautu behar dituzten printzipioak publizitate, lehia eta objektibotasun printzipioak dira. Laburbilduz, laguntzak deialdi bat argitaratzea eskatzen du; eta, 51.4 artikulurekin bat etorritik, lehiaketa bat eratu beharra du aurkeztutako eskaerak alderatzeko, horien artean lehenetsun bat ezartzeko arau erregulatzailleetan aldez aurretik finkatutako balorazio-irizpideen arabera, eta aipaturiko irizpide horiek aplikatuz balorazio handiena lortu dutenak bakarrik esleitzeko.

¹⁴ **Eusko Legebiltzarra.** 32/2016 Legez besteko Proposamena, etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa eta etxebizitzarako prestazio ekonomiko berria erregelamendu bidez garatzeari buruzkoa. Jatorrizko ekimena: 10\11\02\01\00909.



Gainera, ez dirudi proportzionala denik, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 5.1 b) artikulua araberan, behar ez bezala jasotako aipaturiko zenbatekoak itzultzeko gehieneko epea bi hilabeteko borondatezko epe bakarrean ezartzea.

Gai zehatz honi dagokionez, Giza Eskubideen Europako Auzitegia ere mintzatu da (aurrerantzean GEEA). Hain zuzen ere, Casarin c. Italia eta Čakarević c. Kroazia epaietan gogorarazi da erreklamaturako zenbatekoak itzultzean kontuan hartu behar direla ukitutako pertsonen diru sarrera eta kontingentzia bereizgarriak¹⁵.

Ez da ahaztu behar, gaur egun, prestazio osagarria eskuratzeko, urteko diru-sarrera haztatu baxuak egiaztatu behar direla¹⁶. Hori dela eta, pentsa daiteke behar ez bezala jasotako zenbatekoak bi hilabeteko epean itzultzea neurrigabeko ahalegin bat izan daitekeela zenbateko hori jaso zuten familientzat.

Azken batean, Arartekoak ikusi du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak zenbatekoak eskatzeko proposaturako araubide juridikoa nekez egokitzen dela etxebizitza-premia nabariko egoera edo egiaztatutako kalteberatasun ekonomikoko egoera ez den beste helburu baterako pentsaturako eta onartutako araudi batera.

Sailak erabilitako arau-aurreikuspenari kontrajarrita, eta berriz ere aurrekontuak onartzeko legeetan islatutako legegintza-borondate autonomikoa kontuan hartuta, abenduaren 23ko 18/2008 Legeak eta urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuak zenbatekoak eskatzeko araubide zehatz bat aurreikusten dute, eskubide subjektibo bat aitortzea dakarren prestazio baten izaera juridikoarekin bat datorrena.

Ildo horretatik, urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 34. artikulutik 36. artikulura bitarteko artikuluetan behar ez bezala jasotako zenbatekoak eskatzeko prozedura jasotzen da; eta, besteak beste, ezartzen da hileroko itzuli beharreko zenbatekoak ezin izango direla izan bizikidetzaren unitateari dagozkion prestazioen guztizko zenbatekoaren % 30 baino gehiago.

8. Ondorioz, ebazpen honetan azaldu den bezala, etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa aitortzeko erregelamendu-garapenik ez dagoenez, eta, ondorioz, prestazio osagarriaren erregulazio zehatzik ez dagoenez, Arartekoaren ustez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren erabakiak ez du administrazio publiko bati eska dakiokkeen ziurtasun eta segurtasun juridikorik.

Alderdi zehatz horri dagokionez, Arartekoak gogora ekarri nahi du Konstituzioaren 9.3 artikulua administrazio demokratiko baten funtsezko elementuak ezartzen

¹⁵ **Giza Eskubideen Europako Auzitegia.** Apirilaren 26ko Epaia, [Čakarević c. Kroazia](#), 87-89. par. 2021eko otsailaren 11ko Epaia, [Casarin c. Italia](#), 72. par.

¹⁶ Zehazki, ELaren laugarren xedapen iragankorrek urteko gehieneko diru-sarrera haztatu gisa finkatzen ditu honako hauek: 15.000 € hiru kide edo gehiagoko bizikidetzaren unitateentzat, 12.000 € bi kideko bizikidetzaren unitateentzat eta 9.000 € kide bakarreko bizikidetzaren unitateentzat.





dituela, edozein arbitrariotasun saihestuko duen ordena juridikoa izatea ahalbidetzen dutenak.

Hala, Konstituzio Auzitegiaren (KA aurrerantzean) martxoaren 15eko 46/1990 Epaia dioenez, aipaturiko 9.3 artikuluko horren eskakizunak nahitaez dakar araugintza-lanak ez duela egoera nahasirik sortu behar, eta ziurtasuna eta aurreikusgarritasuna sustatu behar dituela ezar daitekeen arau-xedapenaren eta haren ondorioen inguruan¹⁷.

Izan ere, GEEAa azpimarratzen ari da gobernantza onaren printzipioak garrantzi berezia duela, eta, horregatik, uste du agintari publikoek ahalik eta arreta handienaz jokatu behar dutela partikularrentzat berebiziko garrantzia duten gaiak direnean, hala nola gizarte-prestazioak eta jabetzako beste eskubide batzuk¹⁸. Ondorioz, gogorarazi du jabetza-eskubidearekiko interferentziak lege batek aurreikusi behar dituela, eta horrek nolabaiteko aurreikusgarritasuna eskatzen duela. Izan ere, aukera eman behar zaie herritarrei beren jokabidea arautzeko eta, zentzuzko maila batean, beren jarduera jakin batek izan ditzakeen ondorioak aurreikusteko¹⁹.

Ildo beretik, Arartekoak azaldu nahi du Europako Gutun Sozial berraztertuan, 31. artikuluan, etxebizitza eskubidea aitortu zela. Benetan gauzatzea bermatze aldera, V. Ataleko lehen artikulua ezarri zuen botere publikoek neurriak hartzeko betebeharra daukatela, *"lege edo araubide bidez"*.

Kasu honetan, azaldu bezala, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila etxebizitzarako prestazio ekonomikoa delakoa arautzea definitzen ari da barne jarraibide batean; esan bezala, prestazio subsidiarioari lotutako gaiak *ex novo* arautzea lortu nahi da etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa aitortzeari dagokionez.

Azaldutakoa ikusita, Arartekoak Nazioarteko Tratatuaren eta Akordioaren azaroaren 27ko 25/2014 Legearen 29. artikulua berri eman nahi dizu, bertan jaso baitzen betebeharra daukatela *"todos los poderes públicos, órganos y organismos del Estado"* de *"respetar las obligaciones de los tratados internacionales en vigor en los que España sea parte y velar por el adecuado cumplimiento de dichos tratados."* Horren haritik, KA artikuluko horri dagokionez esan duenez, *"tanto [a]l Estado (esta vez en el sentido estricto) como a las comunidades autónomas,"* quienes *"cada uno en el ámbito de sus respectivas competencias, deben «respetar las obligaciones» asumidas por España en los tratados internacionales y «velar» por su adecuado cumplimiento."*²⁰

¹⁷ Konstituzio Auzitegia. Martxoaren 15eko 46/1990 Epaia. Laugarren oinarri juridikoa. [ECLI:ES:TC:1990:46](#).

¹⁸ Giza Eskubideen Europako Auzitegia. 2009ko irailaren 15eko epaia. [Moskal Poloniaren aurka](#), 72. par.

¹⁹ Giza Eskubideen Europako Auzitegia. 2012ko ekainaren 7ko epaia. [Centro Europa 7 S.R.L. eta Di Stefano Italiaren aurka](#), 141. par.

²⁰ Konstituzio Auzitegia. 87/2019 epaia, ekainaren 20koa. Zazpigarren oinarri juridikoa. [ECLI: ES: TC: 2019:87].



Tratatu batek barne araudia ezarri beharra dakarrenean, aipatutako 25/2014 Legearen 30.3 artikulua ezarri zuen, aldi berean, autonomia erkidegoek ere beharrezko neurriak hartu behar dituztela, Espainiari dagozkion tratatuak betetze aldera. Hau da, nazioarteko tratatu batek ezartzen dituen betebeharrak betetzean botere publikoek legedi edo egintza aplikagarriak izatea eskatzen denean, autonomia erkidegoek ere legedi edo egintza horiek aplikatzeko betebeharra daukate, dagozkien eskumen esparruetan.

9. Hori dela eta, Arartekoak ez du kasu honetan arauzko oinarri nahikorik ikusten, ez etxebizitzarako prestazio ekonomikoa delakoa azkentzeko, ez behar ez bezala jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatzeko.

Are gehiago, gogoratu behar da kexagilearen eskubide subjektiboaren osagarri den prestazio ekonomikoa azkentzeko arrazoia izan zela ez zirela aurkeztu errentaren ordainketa egiaztatzen zuten banku-transferentzien egiaztagiria. Nolanahi ere, espedientean dagoen dokumentaziotik Arartekoak egiaztatu du kexagileak errentatzaileak behar bezala sinatutako ordainagiriekin egiaztatu zuela prestazio berezko zuen helbururako erabili izan zela. Hau da, kexagileak eta bere bizikidetzaren unitateak etxebizitza batez gozatzeko eskubidea izateko.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak honako gomendio hau egiten du:

GOMENDIOA

Azaldutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak berrius dezala 2021ko martxoaren 26ko erabakia, zeinaren bidez etxebizitzarako prestazio ekonomikoa delakoa azkentzea ezarri zuen Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariaren ebazpenaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa ezetsi baitzen.

Ondorioz, ondoriorik gabe utz dezala 250 euro itzultzeko betebeharra deklaratzeko ebatzi zuen Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariaren ebazpena.

Nolanahi ere, Arartekoak berretsi egiten du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak lehenbailehen onartu behar duela etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoa delakoa erregelamendu bidez garatzeko izapideak azkartzea.

Bitartean, Arartekoak beharrezkotzat jo du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak azaroaren 4ko Etxebizitzako Sailburuordetzaren Jarraibidea moldatzea, etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren kudeaketari buruzkoa, gaur egun existitzen diren araudi eskaerekin bat etor dadin.

